

Zaldibiako soinu-joleak

M^a Josefa Beloki Zubeldia

- Bedaion (Tolosa) jaio zen, 1887/03/19an.
- Zaldibian hil zen, 1978/08/04an.
- Patxi Iraolak aitari entzundakoa kontatzen du:
Garai batean, Olakosai deitzen den lekuan, pago handien inguruan biltzen omen ziren erromerian, eta Josefak jotzen omen zuen ahoko soinua.

Lorenzo Irastortza Etxeberria

- Zaldibian jaio zen, 1899/02/13an.
- Zaldibian hil zen, 1964/08/31n.
- CAFeko langilea, igeltseroa.
- Bere kabuz ikasi zuen soinua jotzen (soinu txikia).
- Xipri anaiarekin (Franzisko Ignazio Irastorza) eta Jose M. Lasarekin jotzen zuen Zubiondon.
- Inauterietan ere ibiltzen zen dantzariekin.
- Gehienetan, Zaldibian eta Teleitxun jotzen zuen soinua, hor, igandetan joaten ziren erromeriara, taberna baitzegoen.

Meliton Lorategi Lanbide

- Donostian jaio zen, 1902/5/2an.
- Zaldibian hil zen, 1975/09/17an.
- Bidasola baserrian bizi izan zen.
- Trikitixa jotzen bere kabuz ikasi zuen.
- Larraitzen, Benta Berrin, Martin arotzenean... jotzen zuen soinua.

Franzisko Ignazio Irastortza Etxeberria (Xipri)

- Lorenzo Irastortzaren anaia.
- Zaldibian jaio zen, 1905/02/16an.
- Zaldibian hil zen, 1987/06/16an.
- Soinu txikia eta pianozkoa jotzen zituen.
- Asko ibiltzen zen soinuarekin hara eta hona: ezkontzetan, bere tabernan, Errenagan urteoro (Absoluzio bezperan, larunbatean, joaten ziren eta igandean itzuli. Santuarekin zetoze, bidera ateratzen zen eta Igaratzako ermitaraino soinua joz laguntzen zion prozesioari. Eta arratsaldean etxera, bidean noizean behin geratu eta saioak eginez).

Jose M. Lasa Urretabizkaia

- Zaldibian jaio zen, 1909/07/15ean.
- Zaldibian hil zen, 1988/12/16an.
- Sukaldaria zen lanbidez.
- Gaztetan, osaba Sebastian Lasa Balantzategirengana, Argentinara, joateko prestatu eta Bartzelonara joan omen zen, barkua hartzera, baina damutu eta etxera itzuli zen, “Ameriketa” hemen zegoela esanez.
- Osabak eragin handia izan zuen musikarako zuen irrikan.

Justo Salaberria Bengoa

- Zaldibian jaio zen, 1911/11/23an.
- Aitak, Joakinek, zentrolean egiten zuen lana eta haren ondoren, Justok jarraitu zuen.

- Eguneko lan saioa amaituta, iluntzeetan, delineaazioa ikastera joaten zen 8etatik 10etara. Modelista da.
- Bere kabuz ikasi zuen ahoko soinua jotzen. Zentranean jotzen zuen. Han zegoen sala handi batean elkartzen ziren inguruko neska-mutilak, dantza egitera. Zubietan ere jotzen zuen eta hara jende gehiago joaten omen zen, kaleko neska-mutilak ere bai.
- Mendi irteeretan eta koadrilan ere jotzen zuen.
- Zaldibiako “Caza y Pesca” elkartearen sortzailea da. Zentranean egon zenean eta ondoren egindako lanengatik omenaldi asko jasotakoa da.

Patxi Aranburu Goikoetxea

- Zaldibian jaio zen, 1918/01/16an.
- Zaldibian hil zen, 1970/07/08an.
- Bere kabuz ikasi zuen soinua jotzen.
- 16 urte zituela, Ameriketara zegoen osabak oparitu zion soinua, aurretik ere besteren bat izango zuen, eta horrela ikasi omen zuen.
- Inauterietan, Txantxoekin ibiltzen zen, eta inguruko beste erromeria batzuetan ere bai; besteen artean, Benta Berrin.
- Etxean igandero jotzen omen zuen soinua, eta seme-alabek horrela ikasi zuten dantzan.
- Lanbidez baserritarra eta CAFeko langilea, arotzeria zuen gustuko lana.
- Matias Aranburu Garmendia semeak, Malagan bizi denak, jotzen du soinua, Billabonako Martinekin ikasita, aitaren jarraitzailea izateko asmoarekin hasi omen zen soinua jotzen.
- Patxiren bi bilobek ere jotzen dute soinua, batek aitonaren soinuarekin eta besteak panderoa.

Juan Beloki Beloki

- Zaldibian jaio zen, 1918/12/21ean.
- Zaldibian hil zen 1962/06/23an.
- Ezpainetako soinua jotzen zuen, Benta Berrin, Depositutan, Enerion, Oiduin.
- Bertsolaria, aita-semeak mahaian jarrita aritzen omen ziren bertsoetan.

Jose M. Arrese Erauskin

- Zaldibian jaio zen, 1921/1/21ean.
- Zaldibian hil zen, 1978/01/05ean.
- Soinu txikiarekin aritzen omen zen, etxean, Benta Berrin.
- Ikasketak Beasainen egin zituen.
- Soinu txikia jotzen zuen, etxean eta bere tabernan jotzen zuen Eguberrietan eta Urte Zaharretan batez ere.

Migel Elozegi Beloki

- Zaldibian jaio zen, 1926/07/15ean.
- Zaldibian hil zen, 1987/04/08an.
- CAFeko langilea.
- Xipriarekin aritu zen soinua jotzen ikasten.
- Koadrilan, Gabonetan, Santa Ageda bezperan eta erromerietan (gutxi) jotzen zuen.
- Jai eguerditan jotzen omen zuten berak eta Raimundo anaiak.

Raimundo Elozegi Beloki

- Zaldibian jaio zen, 1924/01/23an.

- Donostian hil zen, 2005/07/22an.
- CAFeko langilea.
- Ezpainetako soinua jotzen zuen.
- Bere kabuz ikasi zuen soinua jotzen.
- Migel anaia eta biak aritzen ziren soinua jotzen.

Iñaki Arrese Uranga

- Zaldibian jaio zen, 1931/03/10ean.
- Donostian hil zen, 1990/10/17an.
- Beasaingo La Sallen egin zituen ikasketak.
- Zaldibiako organistarekin hasi zen musika ikasten, eta Donostiako kontserbatorioan egin zuen piano karrera.
- Emmaren gurasoek Donostiako Trinketea ireki zuten eta horko orkestrarekin jotzen zuen, egunoro gauez, ostegunetan egunez ere bai eta larunbatetan eta igandeetan arratsaldez eta gauez.
- Hainbat ezkontzatan (familiakoetan) organoa ere jotzen zuen, eta bidaiatzen zutenean, joaten zen lekuan, aurkitzen zuen pianoren bat eta guztiak inguruan izaten zituen jartzen zuen giroagatik.
- Artzain Ona katedraleko koruan kantatzen zuen.

Jesus Nazabal Iraola

- Zaldibian jaio zen, 1936/01/06an.
- Baionan bizi da.
- Soinua jotzen Tolosako Ramuntxo Belokirekin ikasi zuen.
- Erromerietan jotzen zuen: Zaldibian (Benta Berrin, Azkenportun), Kizkitzan, Mandubin, Zumarragan, Larraitzen (larunbata eta igandetan 3 urtez aritu zen jotzen), Inauterietan ere ateratzen zen gazte-koadrilarekin.
- Oraindik soinua jotzen jarraitzen du, etxean gehienbat.

Mikel Usabiaga Sukia

- Zaldibian jaio zen, 1948/09/27an.
- Ingeniari Teknikoa. Irakaslea lanbidez.
- Pepe Iantziarekin ikasi zuen soinua jotzen. Txistua eta gitarra ere jotzen ditu, bere kabuz ikasita.
- Lazkaomendiko festetan jotzen zuen soinua. Lazkaomendiko haurrekin egindako hainbat jaialdi antolatu zuen eta orduan ere han izaten zen bere instrumentuekin.
- Abaltzisketako Txantxoekin ere ibili zen soinua jotzen, urte askotan Txantxo-dantza ahaztuta egon ondoren berriro berreskuratu zenean.
- Oraindik ere jarraitzen du soinua jotzen lagunartean eta ikastetxean.

Roman Elozegi Etxabe “Zaharra”

- Zaldibian jaio zen, 1953/10/25ean.
 - Raimundo eta Migel Elosegiren iloba.
 - Goierriko lanbide heziketa ikastetxean ikasia eta CAFeko langilea.
 - Pilotaria izan zen.
 - Bere kabuz ikasi zuen panderoa jotzen eta Xaprerekin aritzen da lan horretan.
- Behin Ikaztegietako festetan gertatutako bitxikeria kontatzen du berak:
 Lehenengo, pilota partida jokatu zuen herriko batzuen aurka, eta gero, bertsolariei gaia jartzeko eskatu zien, idatzita, eta horrela egin zuen, eta ondoren,

Xaprerekin panderoa joz erromerian aritu zen. Mutiko bat gerturatu omen zitzaion eta honela esan omen zion: “*20 oficios 40 miserias*”.

Eleuterio Jauregi Beloki

- Zaldibian jaio zen, 1956/02/20an.
- Ikasketak Zaldibian eta Beasaingo Institutuan egin zituen; gero, lanean hasi zen.
- Tere Irastortzarekin ikasi zuen solfeoa.
- Panderoa jotzen “Iñaki eta Ramon” bikoteko Ramonek irakatsi zion eta trikitixa Iñaki Aranarekin ikasi zuen, baina ez du jarraitu.
- Ahotsa lantzeko ikastaroak ere egin zituen Donostiako Antiguán. Behar-beharrezkoa jotzen du ahotsa lantzea, ondo kantatu ahal izateko.
- Kanturako zaletasun handia izan du betidanik, aitonak bertso paperak ematen zizkien kantatzeko, eta hortik aurrera, kantu asko irentsi dituela esaten du, nahiz eta euskal abestirik ez egon garai hartan. Geroago, euskal abeslariak hasi zirenean, beste mundu bat zabaldu zitzaion.
- Zaldibian txistu taldearekin jotzeko atabala ikasi zuen, Beasaingo txarangako kide batekin, eta horrela hasi zen musikaren inguruko bere ibilbidea.
- Txaranga ere sortu zuten Zaldibian, Ordiziakoa zen zuzendaria. Hor jotzeko, tronboia eta bonbardinoa jotzen ikasi zuen.
- 1990ean, Imuntzorekin hasi zen panderoa jotzen, Imuntzok musika egiten du eta Belokik, berriz, letra (egin edo aurkitu). Sei disko grabatu dituzte eta oraindik jubilatzeke asmorik ez dute.
- Orain gitarra ikasten ari da, taldeari laguntzeko.

Jose Luis Etxeberria Arratibel (Xapre)

- Zaldibian jaio zen, 1957/02/05ean.
- Soinu txikia ikasten Martin Aguinagalderekin hasi zen, eta gero, bere kabuz ikasi zuen.
- Euskal Herriko leku gehienetan, eta kanpoan ere askotan, soinuarekin egona, beti bere soinuarekin eta lagunez inguratuta.
- Panderoarekin laguntzen berarekin ibiltzen direnak:
 - **Roman Elozegi “Zaharra”**
 - **Jose Antonio Irastortza “Furriela”**
 - **Juan Manuel Etxeberria Arratibel (anaia)**
 - Zaldibian jaio zen, 1965/02/08an.
 - Leturiarekin, Egurrolarekin eta Martinekin ikasi zuen.
 - **Abarlotz Olano Etxeberria (iloba)**
 - Zaldibian jaio zen, 1980/02/02an.
 - Izarorekin ikasi zuen.
 - **Oihane Etxeberria Altuna (iloba)**
 - Zaldibian jaio zen, 1995/03/01ean.
 - Joan Manuel aitarekin ikasi zuen.

Jose Antonio Irastortza “Furriela”

- Zaldibian jaio zen, 1958/06/02an.
- Arreba zaharrenak Erregetan pandero txiki bat oparitu zion eta harekin hasi zen jo eta jo.
- Orduan Musika Eskolarik ez zegoenez, han eta hemen ibiliaz eta panderojoleengan arreta jarriaz ikasi omen zuen panderoa jotzen.
- Xaprerekin ibiltzen da gehienetan ekitaldi eta erromerietan.

Arantxa Etxeberria Arruabarrena

- Zaldibian jaio zen, 1961/08/31n.
- Ikasketa orokorrak, Zaldibian eta Ordizian, UBI arte, egin zituen.
- Solfeoa eta akordeoia (esku-soinua) Iñaki Aierberekin ikasi zituen. Donostiako kontserbatorioan atera zuen Goi-mailako titulua (Irakasleak: Eskudero, Marko, Lutxi Manzisidor...).
- Txistua ere jotzen du.
- Hainbat txapelketatan parte hartua:
 - o Ordizian, 1. saria irabazi zuen.
 - o Gipuzkoako txapelketan, 3. saria.
 - o Espainiakoan, 3. saria.
- Beasaingo soinu orkestrako partaidea izana da eta hainbat lekutan ibili da orkestrarekin, atzerrian ere bai.
- Ormaiztegiko Musika Eskolako irakaslea da, musika-hezkuntza, akordeoia eta txistua irakasten ditu.
- Haurren taldeak prestatzen ditu emanaldietarako, Gabirian batez ere, trikitixa, zeharkako txirula, txistua, pianoa, gitarra, txalaparta, perkusioa... eta ahal diren tresna guztiak erabiliz.
- Ondorengoek ere badute musika zaletasuna, Ainhoa bere alabak txistua eta klarinetea jotzen ditu.

Ainhoa Agirre Goikoetxea

- Zaldibian jaio zen, 1976/11/17an.
- Lanbidez irakaslea da, Zaldibian eta Gaintzan egiten du lana.
- Solfeoa ikasten Arantxa Etxeberriarekin aritu zen.
- Trikitixa Billabonako Martinen eskolan eta Zaldibiako Izaro Garmendiarekin ikasi zuen.
- Aitak soinua zuen etxean, Xipriri erosia, eta harekin aritzen zen “xaltxan”, hasieran. Albizturgo bat etortzen omen zen soinua jotzera eta hortik sortu zitzaion ikasteko gogo. Gero, soinu berria erosi zuen.
- Txapelketa askotan eta hainbat ekitalditan parte hartu du bere ahizparekin batera: Zaldibian (afarietan eta ekitaldietan), Gaintzan, Ordiziako festetan, Donostian...

Idoia Agirre Goikoetxea

- Zaldibian jaio zen, 1978/04/04an.
- Pandero-jotzailea da, ahizparekin ibiltzen da.
- Ahizpak bezala, Martinen eskolan eta Izaro Garmendiarekin ikasi zuen panderoa jotzen.
- Lanbidez erizaina da.

Unai Beloki Garmendia

- Zaldibian jaio zen, 1983/05/30ean.
- Trikitixa eta panderoa jotzen ditu.
- Izaro Garmendiarekin ikasi zuen.
- Herrian eta inguruan ibiltzen da soinua jotzen.